



**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAREN, HERRITARREN
PARTE HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN LEGE PROIEKTUAREN
MEMORIA EKONOMIKOA**

**a) AURREKARIEN AZALPEN A ETA XEDAPENAREN BEHARRIZANAREN
JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA**

a1) Proposatutako araua emateko oinarri juridikoen adierazpena

Espainiako Konstituzioaren 9.2. eta 9.3. artikuluek arautzen dute, alde batetik, bizitza publikoan parte-hartzeko modua erraztu behar zaiela herritar guztiei, eta, bestetik, arauen publizitatea eta segurtasun juridikoa bermatu behar dela, eta botere publikoen bidegabekeria debekatu. Horrez gainera, 20.1.d) eta 105.b) artikuluetan, egiazko informazioa jasotzeko eskubidea eta herritarren informazio publikorako sarbidea arautzen dira. Horrela, **botere publikoen jardueraren gardentasuna, informazioa eskuratzeko eskubidea eta herritarren parte-hartzea** arautzen dira.

Azken gai-alor horretan, *abenduaren 9ko 19/2013 Legea eman zuen Estatuak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa*. Oinarrizko legea da hori, eta haren 5.2. artikuluan arautzen du kapituluan jasotako gardentasun-betebeharrak gain, araudi autonomikoek aurreikusten duten berriazko beste xedapen batzuk ere aplikatu ahal izango direla. Horrenbestez, Estatuak emandako oinarrizko araubidea gara dezake Euskal Autonomia Erkidegoak, bere eskuduntzak baliatuta. Hori bera esan behar da adierazi berri den legeko 12. artikuluari buruz, hau agintzen baitu informazio publikorako sarbidea arautzean: «...*autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da*».

Bestalde, **herritarrek arau-proiektuetan izango duten parte-hartzea** arautzen du Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9.2 e) artikulua, eta, berriaz, hau agintzen die EAEko botere publikoei, haien eskuduntza-esparruan: «Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute». Era berean, hau arautzen du 27.4 artikulua: «*Eusko Legebiltzarrak izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herritarren ekimena lege baten bidez arautuko du Legebiltzarrak, Konstituzioaren 83. artikuluan aurreikusitako Lege Organikoak finkatu dezanarekin bat*». Xedapen horretan oinarrituta, *ekainaren 26ko*

8/1986 Legea eman zen, Legegintzarako herri-arioari buruzkoa.

a2) Proposatutako arauaren eta aurrekarien ildo orokorren berri emateko datuen, txostenen eta azterlanen adierazpena

2014ko irailaren 16an, Gobernu Kontseiluak Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektua onartu zuen; ondoren, hori Eusko Legebiltzarrera bidali zuten. Joan den apirilaren 23an, Eusko Jaurlaritzak lege-proiektua baztertzea erabaki zuen. Izan ere, ezin izan zuen adostasuna lortu oposizioarekin testua Eusko Legebiltzarrean aurrera ateratzeko, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektuan eta Talde Politiko guztiek Legebiltzarrean aurkeztutako zuzenketan jadanik existitzen den edukian oinarritutako bi proiektu berri Legebiltzarrera bidaltzeko konpromisoa hartu bazuen ere.

Beraz, bi proiektu berriak honako hauek dira:

- Lehenengoa, Euskal Sektore Publikoaren Antolakuntzako eta Funtzionamenduko Lege Proiektua. Proiektu honek Euskal Sektore Publikoaren sailkapena, eraketa eta antolakuntza hartzen ditu barne: egituraren erregulazioa, funtzionamendua eta betebeharrak, erakunde bakoitzaren eskumenen mugak, administrazioen arteko nahitaezko lankidetzak eta koordinazioa eta kontrolatzeko eta erregistratzeko prozedurak. Era berean, funtzionamenduaren elementua hartzen ditu barne; hala nola, administrazio elektronikoa edo kudeaketa aurreratuko sistemak.
- Bigarrena, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua. Proiektu horrek gobernu onaren printzipioak arautzen ditu: politika publikoen plangintza eta ebaluazioa; gardentasuna, publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko bermea eta herritarren parte-hartzea.
- Gainera, 2015eko urtarrilaren 13an egindako saioan, «informazio publikoaren sarbideari, publizitate aktiboari eta gardentasun nahiz gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren funtzionamendu-neurriak» dituen dokumentua onartu zuen Gobernu Kontseiluak, oinarritzko araudian ezarritako betebeharra urtebete aurreratzeko.

Herritarrek egindako informazio-eskaerei Eusko Jaurlaritzak 20 eguneko gehieneko epean erantzuneko diela ezarri da hitzarmen horretan. Hala ere, epea luzatu eta 20 egun gehiagotan erantzuteko

aukera ezarri da, aurkeztutako eskaeraren bolumenak edo zailtasunak hala justifikatzen badu.

Prozedurari dagokionez, testuak jasotako informazio-eskaera guztiei erantzuteko derrigortasuna ezartzen du, aurretik eskatzailea identifikatuta eta eskaera arrazoitzeko obligaziorik gabe. Eskaera horiek Interneten edo ohiko postaren bidez egin ahal izango dira, bai eta bulegoetan presentzialki ere, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean herritarren arretarako zerbitzuaren bidez.

a3) Beharrianaren justifikazio ekonomikoa

Lege-aurreproiektuak herritarren gauza publikoren pertzepzioa hobetzeko, balioa handitzeko funtzionamenduaren oinarriak ezarri nahi ditu, garai berriek eskatzen dituzten eta gobernantza ona deitutakoaren aspektu ezberdinekin erlazionatutako paradigma berrietan oinarritutako kultura administratibo berria sortzen lagunduta, politika publikoen ebaluazioak, gardentasunak eta herritarren gai publikoetako parte-hartzeak eratzen duten triangelu kontzeptualetik landuta, horietako bakoitzak beste biek ez bada funtzionatu ezin duenaren edo sostengatu ezin daitekeen premisatik abiatuta.

Azken urteetan, hainbat gizarte-, legegintza-, antolakuntza- eta teknologia-aldaketa izan ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoan funtzionamendua eguneratuko duen araudiaren eguneraketa geroraezina bihurtuta.

Ekimenaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren funtzionamendua hobetzea da, “administrazio-lan onean” oinarrituta, hau da, administrazioa herritarrengana bideratuz eta balio publikoa sortuz, haren efikazia eta efizientzia hobetzeko beharrezkoak diren tresnak eta bitartekoak erabilia: plangintza eta ebaluazioa, informazio publikoa eskuratzeko eta herritarren partaidetza txertatzeko kudeaketa publikoan.

Gainera, ekimenak jarduera ekonomikoa bultzatuko du; izan ere, administrazio publikoaren jardun-moduak eragina du jarduera ekonomiko-pribatuaren nolakotasunean. Alde horretatik, aurreproiektuak jasotzen dituen datuen irekitasuna eta berrerabilpena diren ekintzailtzaren bultzada adibide bat da.

kontsulta eta ikuspegiak noiz digitalizatuko diren erabaki behar da. Abiapuntua oso egokia da, Gardentasun Atarian argitaratzen baita, gaur egun, arau-ekimen honek aurreikusten duen ia informazio guztia. Hemen jasotako jarduerak bultzatzeko, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak jadanik badu aurrekontu-sail bat esleituta.

						EURO / EUROS		
SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.		PARTIDAK	GUZTIZKOAK	
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.		PARTIDAS	TOTALES	
15	02	1215	33	23899	004	Gardentasuna eta gobernu ona <i>Transparencia y buen gobierno</i>	81.600	

- Datu publikoak ezinbestean berrerabili eta ireki behar dira, hori agintzen baitu oinarrizko araubideak (37/2007 legea, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa eta 19/2013 legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa), eta, ondorioz, baita Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuneko eta Gobernu Oneko lege-aurreproiektu horiek ere. Orain arte urrats handiak eman diren arren, bidea egin behar da oraindik, Eusko Jaurlaritzako datu-base ugariak aukeraren eta bideragarritasunaren arabera egokitzen joan behar baita pixkanaka, haiek ireki eta berrerabili ahal izateko. Beraz, lanerako plan operatibo bat osatu beharko da, hari dagokion aurrekontu-hornidurarekin. Hemen aipatutako egin beharreko jardueri dagokienez, jada badago aurrekontu-sail bat esleituta kontzeptu horretarako, 300.000 eurokoa, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan.

						EURO / EUROS		
SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.		PARTIDAK	GUZTIZKOAK	
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.		PARTIDAS	TOTALES	
15	02	1215	33	23899	005	Datu publikoak eskuragarri egotea (OpenData). Konpromiso kreditua: 2016: 0,40 M; Guztira: 0,40 M. <i>Apertura de datos públicos (OpenData). Crédito de compromiso: 2016: 0,40 M; Total: 0,40 M.</i>	300.000	

- Aurrekontu bakoitzean zehaztu beharreko diru-zenbatekoak behar dira Demokrasiaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuriaren zabaltzeko edo **parte hartzea sustatzeko beste neurri batzuk** hartzeko (sentsibilizazio eta prestakuntzako programak, gizarte-ekimenak laguntzea...). Zenbateko zehatzak erabakitzeko, sailek haien gai-alorraren arabera abiarazten dituzten jardueri erreparatu beharko

zaie. Esaterako, ez da partaidetzarako ahalegin bera egin beharko lege “tekniko” bat emateko edo herritarrengan eragin zuzen handia izango duen lege bat emateko. Herritarren partaidetzarako alorrean eskudun den organoak zehaztuko du aurrekontu-zenbatekoa. Egun, hainbat laguntza-lerro daude kulturaren, kirolaren, gazteriaren, emakumearen eta bestelako bultzadari lotutako asoziazionismoa sustatzeko. Egun, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak badu «Demokraziaren eta Partehartzearen Liburu Zuriaren» kontzepturako esleitutako aurrekontu-saila.

SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.		EURO / EUROS		
						PARTIDAK	GUZTIZKOAK	
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.		PARTIDAS	TOTALES	
15	02	1215	33	23899	006	Demokraziari eta partaidetzari buruzko liburu zuria	40.000	
						<i>Libro blanco de democracia y participación</i>		

- Gaur egun, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak bere gain hartuak ditu lege-aurreproiektuak jasotzen dituen elementu gehienak, zuzendaritza horrek esleituta dituen aurrekontuetan eta egituretan oinarrituta. Lege-aurreproiektuak, ordea, baditu elementu berri eta berezi batzuk, gardentasunaren bultzadarekin lotutakoak.
- Estatuko araubideak agintzen duena aintzat hartuta, organismo berri bat sortzeko agindua ematen du Euskal Funtzio Publikoaren lege-aurreproiektuak. **Gardentasunaren Euskal Agentzia** izango da haren izena, eta bere egitekoa, berriz, informazio publikoa eskuratzeko erreklamazio nahibadakoak erabakitzea. Organismo hori Lehiaren Euskal Agintaritzaren antzekoa izango da, baina egitura-bolumen nabarmen txikiagokoa. **Gardentasunaren Euskal Agentziaren** egitura antzekoa izango litzateke, baina askoz txikiagoa, zuzendari bat, bi abokatu eta idazkari bat izango litzateke-eta. 4 pertsona, guztira. Lehiaren Euskal Agintaritzan, berriz, 12 pertsona daude. Horregatik, Gardentasunaren Euskal Agentziarako, kalkulatzen da kostua Lehiaren Euskal Agentziarako kostuaren %26 izango dela; hau da, 294.368 euro, honela zehaztuta:

PLAZA KOP.	TALDEA	LANPOSTUA	LANPOSTU-OSAGARRIAREN MAILA	BERARIAZKO OSAGARRIA	URTEKO ORDAINSARI GORDINA (2014KO SOLDATAN)	GIZARTE-SEG. KOSTUA 2014	GUZTIRA
1	Goi-karguduna	Zuzendaria			67.087,03	10.877,33	77.974,36
1	Karrerako funtzionarioa	Zuzenbidean liz.	27	II-B	52.340,48	10.877,33	63.217,80
1	Karrerako funtzionarioa	Zuzenbidean liz.	27	II-B	52.340,48	10.877,33	63.217,80

1	Karrerako funtzionarioa	HAZ	18	VI-A	30.197,59	7.609,79	37.807,38
1	Karrerako funtzionarioa	Administrari orokorra	16	VII-A	27.284,55	6.875,71	34.160,26
					229.250,13	47.117,48	276.368

								EURO / EUROS		
SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.				PARTIDAK	GUZTIZKOAK	
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.				PARTIDAS	TOTALES	
15	02	12150	33.0100	23899	001	II. KAPITULUA - FUNTZIONAMENDU-GASTUAK			18.000	

b) LEGE-PROIEKTUA INDARREAN SARTZEAK ERAGINGO DITUEN AURREKONTU-GASTUEN ETA DIRU-SARREREN KUANTIFIKAZIOA

Finean, azaldu den guztiari erreparatuta eta ondorio moduan, esan daiteke Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuneko eta Gobernu Oneko lege-aurreproiektuak lege-oinarriak ezartzen dituela gobernu ona eta efikazia- eta efizientzia-neurri berritzaileak sustatzeko euskal sektore publikoan. Lege-aurreproiektu honek proposatutakoa bezalako lege-esparrua behar zuten «gobernu onaren» elementuak bultzatzea ahalbidetzen duten irizpide argiak ezartzen ditu. Funtsean, gardentasuna eta balioaren sormena bultzatzen duen legea izateagatik, ez du aurrekontu-inbertsio handirik behar, aurreko puntuetan azaldu bezala, jadanik martxan dagoen datuen irekitasuneko eta berrerabilpeneko proiektuaren bultzadaren (Opendata), Euskadiko demokraziaren eta parte-hartzearen Liburu Zuriaren zabalpenaren eta Gardena Euskal Agentziaren sorreraren haraindian. Nolanahi ere, aipatutako inbertsioa argi saritzen da gauzatuko duen lanarengatik; izan ere, sortu ezean, funtzioak Estatuko Gardentasun Kontseiluarekin adostu eta dagokion aurrekontu-saila esleitu beharko genuke.

Ezarriak dauden eta legea indarrean jartzean egin beharrekoak diren jardueretara bideratutako aurrekontu-sailak, 2015 urterako, 02 sekzioan, 1215 programan, 33 zerbitzuan

Politika publikoen ebaluazioa <i>Evaluación de políticas públicas</i>	60.000
Datu publikoak eskuragarri egotea (OpenData). Konpromiso kreditua: 2016: 0,40 M; Guztira: 0,40 M. <i>Apertura de datos públicos (OpenData). Crédito de compromiso:</i> 2016: 0,40 M; Total: 0,40 M.	300.000
Demokraziari eta partaidetzari buruzko liburu zuria <i>Libro blanco de democracia y participación</i>	40.000
Gardentasuna eta gobernu ona <i>Transparencia y buen gobierno</i>	81.600
481.600	

Legea indarrean jartzean ezarri beharko diren aurrekontu-sail berriak

12150 programa - Gardentasunaren Euskal Agentzia	294.368
--	---------

Memoria honen I. eranskinean zenbait helburu, ekintza eta adierazle jasotzen dira, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren 2015eko memoriari dagozkionak, eta bertan ikusten da, neurri handi batean, zer jarduera-bolumen eta zer izaerako helburuak lor daitezkeen egun dauden aurrekontu-hornidurekin eta egungo plantillarekin.

c) AURREKONTUKO GASTUEN FINANTZAKETA ETA AURREKONTUTIK EZ DATOZEN GASTUEN FINANTZAKETA

c1) Ukitzen diren ordaintzeko aurrekontu-kredituak eta horien programa, azpi-programa, kapitulu, artikulu eta kontzeptuaren zehaztapena

c2) Konpromisozko aurrekontu-kredituak eta horien programen, azpi-programen, kapituluaren, artikuluen eta kontzeptuen zehaztapena

c3) Aurrekontuetatik kanpoko finantzazio-iturriak

d) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN GAJETAN ERAGITEN DUTEN XEDAPEN-ALDERDIAK ZEHAZTEA

d1) Ondarearen eta kontratazioaren araubidean

d2) Diruzaintzaren, zorpetzearen edo bermeak ematearen araubidean

d3) Aurrekontuak egin eta kudeatzean

d4) Indarrean dagoen kontrol- eta kontabilitate-sisteman

d5) Zerga-sisteman eta aplikatzekoa den zuzenbide publikoko edo pribatuko gainerako diru-sarreretan

d6) Indarrean dagoen diru-laguntzen eta laguntzen araubidean

Arauk ez du aurrez adierazitako ataletan eragiten.

d7) Izaera ekonomikoa duten eskubide eta betebeharrekin lotuta dauden beste araubide batzuetan

Ez du eraginik bestelako araubideetan.

e) PROPOSATUTAKO XEDAPENARI DAGOKION AURREKONTU- ETA EKONOMIA-PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

e1) Araua justifikatzen duen aurrekontu-memoriaren eta hari dagokion aurrekontu-programaren deskribapen laburra

e2) Araua indarrean sartzean erasango diren helburuak, ekintzak eta adierazleak eta haietan izango diren aldaketak

Aurrekontu-programa hauek erasango ditu

1215 Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa

1121 Lehendakaritzako egitura eta laguntza

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainean

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

I. ERANSKINA

PROGRAMA	PROGRAMA
1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA</u>	<u>02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA</u>
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA	VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA

MEMORIA

Sailen arteko plan eta proiektuak prestatuz eta koordinatuz, Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak zerbitzu publikoetako berrikuntza eta kalitate-hobekuntza bultzatzen du baita Administrazio elektronikoaren benetako garapen eta ezarpena ere. Gainera, herritarrei zerbitzu publikoetan sartzea bide ematen dieten mekanismo, tresna eta informazio- eta arreta-zerbitzu zentralizatuak kudeatzen ditu.

Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak honako hauek sustatu nahi ditu:

Administrazio irekia: Gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea administrazio publikoan.

Administrazio eraginkorra: Hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet...) eskura daitezkeen kalitatezko zerbitzuen eskaintza garatzea.

Administrazio efizientea: Administrazio-kudeaketan efizientzia hobetzea; horretarako, erakundea egokitu, prozedurak erraztu eta teknologia eguneratu behar da.

Administrazio berritzailea: Administrazioan berrikuntza sustatzea, herritarrek eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.

Laburbilduta, hauexek dira jarduketaren ardatzak:

- Gardentasuna eta gobernu ona: Administrazio Publikoaren funtzionamendua araubide demokratiko aurreratura egokitzea.

La Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración (DACIMA) impulsa la innovación y la mejora de la calidad de los servicios públicos, así como el efectivo desarrollo e implantación de la Administración electrónica, mediante la elaboración y coordinación de planes y proyectos interdepartamentales. Además, gestiona los mecanismos, instrumentos y servicios de información y atención, de carácter centralizado, que facilitan el acceso de la ciudadanía a los servicios públicos.

La DACIMA tiene entre sus objetivos promover:

- Una Administración abierta: Promover la transparencia, la participación y la colaboración en la Administración pública.
- Una Administración eficaz: Desarrollar una oferta de servicios de calidad y accesible por diferentes canales (presencial, teléfono, Internet).
- Una Administración eficiente: Mejorar la eficiencia en la gestión administrativa, adecuando la organización, implantando nuevos modelos de gestión y realizando un uso inteligente de la tecnología.
- Una Administración innovadora: Promover la innovación en la Administración involucrando a la ciudadanía y a los profesionales públicos en el diseño, la gestión y la evaluación de las políticas y de los servicios públicos.

Los ejes de actuación se resumen en los siguientes:

- Transparencia y buen gobierno: Adecuar el funcionamiento de la Administración Pública a los requisitos de un régimen democrático avanzado.



- Herritarrekin elkarreragina: Herritarrei kalitatezko zerbitzuak eta arreta bermatzea, gaur egun erabilgarri dauden hainbat interakzio-kanalen bidez.
- Antolaketaren egokitzapena: Lanpostuen profilak eta antolaketa-egitura egokitzeko.
- Kudeaketaren hobekuntza: Zerbitzuak eraginkortasunez egin daitezten.
- Administrazio elektronikoa: administrazio elektronikoa garapena finkatzea, osatzea eta eguneratzea.
- Elkarrekin sortuz berritza: Herritarrek eta profesional publikoek politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten.
- Interacción con la ciudadanía: Garantizar unos servicios y una atención de calidad a la ciudadanía, a través de los diversos canales de interacción disponibles en la actualidad.
- Adecuación organizativa: Para adecuar la estructura organizativa y los perfiles de los puestos de trabajo.
- Mejora de la gestión: Para que la prestación de servicios se realice de forma eficiente.
- Administración electrónica: consolidar, completar y actualizar el desarrollo de la Administración electrónica.
- Innovación desde la co-creación: Para involucrar a la ciudadanía y a los profesionales públicos en el diseño, la gestión y la evaluación de las políticas y de los servicios públicos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN.</p> <p>Gardentasuna eta kontuak ematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEk lider izaten jarraitzea Estatuko gardentasun-rankingetan, eta nazioarteko erreferentzia-ereduetarantz joatea. • Open Datan argitaratzen den dataset-kopurua haztea: <p>Herritarren parte-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzearen aldeko formula berriak proposatzen dituzten proiektu pilotuak sustatzea. <p>2. HAINBAT BIDE ERABILIZ (AURREZ AURREKOA, TELEFONOA, INTERNET...) ESKURA DAITEZKEEN KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA GARATZEA.</p> <p>Herritarrekin elkarreragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herritarrek Administrazioaren zerbitzuak behar dituztenean, Administrazioaren erantzunari irizten dioten eraginkortasunaren indizea hobetzea. <p>Herritarrek eta enpresek erabil ditzaketen zerbitzu elektronikoen eskaintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu elektronikoen portzentajea. <p>Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea:</p>	<p>1</p> <p>%10 URTEAN</p> <p>2</p> <p>> 8/10</p> <p>% 85</p>	<p>1. PROMOVER LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.</p> <p>Transparencia y rendición de cuentas:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mantener el liderazgo de la CAE en los rankings de transparencia del Estado y avanzar hacia los modelos de referencia internacionales. • Incrementar el número de datasets publicados en Open Data: <p>Participación ciudadana:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apoyo a proyectos piloto novedosos en fórmulas favorecedoras de la participación. <p>2. DESARROLLAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE POR DIFERENTES CANALES (PRESENCIAL, TELÉFONO, INTERNET).</p> <p>Interacción con la ciudadanía:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mejorar el índice de satisfacción de la ciudadanía en su interacción con la Administración. <p>Oferta de servicios electrónicos puestos a disposición de la ciudadanía y de las empresas:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Porcentaje de servicios electrónicos. <p>Promover el uso de los servicios electrónicos:</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> Herritarren izapide elektronikoen portzentajea. 	<p>% 15</p>	<ul style="list-style-type: none"> Porcentaje de trámites electrónicos de la ciudadanía.
<ul style="list-style-type: none"> Enpresen izapide elektronikoen portzentajea. 	<p>% 60</p>	<ul style="list-style-type: none"> Porcentaje de trámites electrónicos de las empresas.
<p>Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna:</p>		<p>Interoperabilidad entre las administraciones públicas:</p>
<ul style="list-style-type: none"> Elkarreragingarritasun Sistema Orokorra abian jartzea. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Poner en marcha el Sistema General de Interoperabilidad.
<p>3. ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAN EFIZIENTZIA HOBETZEA; HORRETARAKO, ERAKUNDEA EGOKITU, PROZEDURAK ERRAZTU ETA TEKNOLOGIA EGUNERATU BEHAR DA.</p>		<p>3. MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN ADMINISTRATIVA, ADECUANDO LA ORGANIZACIÓN, IMPLANTANDO NUEVOS MODELOS DE GESTIÓN Y REALIZANDO UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA.</p>
<p>Antolaketaren egokitzapena:</p>		<p>Adecuación organizativa:</p>
<ul style="list-style-type: none"> Berrikusi diren eredu-postuen kopurua, behar berrietara egokitzeko asmoz. 	<p>12</p>	<ul style="list-style-type: none"> Número de puestos tipo revisados para la adecuación a las nuevas necesidades.
<ul style="list-style-type: none"> Administrazio elektronikoaren antolaketa-euskarria sortzea. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Creación del soporte organizativo de la Admón. Electrónica.
<ul style="list-style-type: none"> Espedienteen kudeaketa elektronikoan prestatutako pertsonen kopurua. 	<p>1.400</p>	<ul style="list-style-type: none"> Número de personas formadas en gestión electrónica de expedientes.
<p>Kudeaketaren hobekuntza:</p>		<p>Mejora de la gestión:</p>
<ul style="list-style-type: none"> "Egiten Ikasi" prestakuntza-ekintza ezarritako egutegiaren arabera ematea. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Impartir la formación-acción "Egiten Ikasi" de acuerdo con el calendario establecido.
<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa-unitate bakoitzaren diagnosis eta hobekuntza-plana egitea, kudeaketa aurreratuaren eredia aintzat hartuta. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Elaborar diagnósticos y planes de mejora de cada unidad organizativa en relación con el Modelo de Gestión Avanzada.
<p>Barne-kudeaketa elektronikoa:</p>		<p>Gestión electrónica interna:</p>
<ul style="list-style-type: none"> Intranet berria ezarrita. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Nueva intranet implantada.
<ul style="list-style-type: none"> Prozedura digitalizatuen portzentajea. 	<p>% 35</p>	<ul style="list-style-type: none"> Porcentaje de procedimientos digitalizados.
<p>Politika publikoen ebaluazioa:</p>		<p>Evaluación de las políticas públicas:</p>
<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazioak argitaratzeko atari bat garatzea. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Desarrollar un portal para la publicación de evaluaciones.
<ul style="list-style-type: none"> Politika publikoak behar bezala ebaluatzea, modu eredugarrian eta antolaketa-kulturan asko eraginez. 	<p>1</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ejecutar una buena práctica de evaluación de políticas públicas ejemplificadora y con fuerte impacto en la cultura organizativa.
<p>4. ADMINISTRAZIOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA, HERRITARRAK ETA PROFESIONAL PUBLIKOAK SARTUZ POLITIKA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN.</p>		<p>4. PROMOVER LA INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN INVOLUCRANDO A LA CIUDADANÍA Y A LOS PROFESIONALES EN EL DISEÑO, LA GESTIÓN Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS Y DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS.</p>
<p>Profesionalengandik berritzea:</p>		<p>Innovación desde los profesionales:</p>

